

Euskal AEko establezimendu-kopurua jaitsi egin da bosgarren urtez jarraian

Jarduerari ekin eta eten zutenen arteko saldo garbia, aurreko urtearen aldean, bost mila pasa establezimendu gutxiago da

Euskal AEn, 2013ko hasieran, jarduera-sektoreetako 161.067 enpresa ari ziren, Eustaten datuen arabera, 179.285 establezimendutan (lantegietan, dendetan, bulegoetan...), urtebete lehenago baino %2,8 gutxiago.

Establezimendu kopurua sektore guztietan murriztu da, Nekazaritza, abeltzaintza eta Arrantzan (%+14,9) eta Administrazio publiko, hezkuntza eta osasungintzan (%+1,4) izan ezik. Aipagarriak dira Higiezinaren jarduerak (%-19,0) eta Eraikuntza (%-8,9).

Establezimendu kopurua, jarduera-adar eta urte arteko aldakuntza-portzentajearen arabera. 2013/01/01

	Euskal AE		Araba / Álava		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Guztira	179.285	-2,8	25.364	-1,6	91.949	-3,5	61.972	-2,2
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	7.168	14,9	2.071	14,2	2.313	13,6	2.784	16,4
Industria, energia eta saneamendua	12.815	-4,5	2.148	-3,3	5.666	-5,6	5.001	-3,6
Eraikuntza	22.640	-8,9	2.965	-10,7	11.352	-9,0	8.323	-8,1
Merkataritza, garraioa eta hostalaritza	68.695	-2,4	9.136	-1,2	36.611	-2,9	22.948	-2,2
Informazioa eta komunikazioak	3.079	-3,2	379	-8,5	1.684	-3,2	1.016	-1,0
Finantza jarduerak eta aseguruetaoak	4.953	-4,5	726	-4,5	2.639	-5,9	1.588	-2,3
Onibar-jarduerak	3.406	-19,0	237	-3,3	1.961	-20,9	1.208	-18,4
Jarduera profesionalak eta lagungarriak	27.997	-2,1	3.820	-2,0	14.925	-2,6	9.252	-1,4
Herri administrazioa, hezkuntza eta osasuna	16.114	1,4	2.160	0,5	8.575	1,2	5.379	2,0
Arte jarduerak eta beste zerbitzu batzuk	12.418	-0,6	1.722	0,5	6.223	-1,0	4.473	-0,4

Iturria: Eustat. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda

Sektore kopuruz handiena Merkataritza, garraio eta ostalaritza da, establezimendu guztien %38,3; ondoren Jarduera profesional eta laguntzaileak, %15,6 eta Eraikuntza, %12,6.

Merkataritza, garraio eta ostalaritza bada baita ere garrantzitsuena enpleguari begiratuz; Jarduera Ekonomikoen Direktorioak kontabilizatutako guztirakotik (855.093) %26,1 enplegatzen baitu. Ondoren Industria, energia eta saneamendua, %21,3, eta Administrazio publikoa, hezkuntza eta osasungintza, %20,7.

Sektore-egitura aldatu egiten da lurraldeen artean. Araban enplegatzaileak handiena Industria, energia eta saneamendua da, %28,0; ondoren Merkataritza, garraio eta ostalaritza, %22,8, eta Administrazio publikoa, hezkuntza eta osasungintza, %22,5.

Bizkaian aurrena Merkataritza, garraio eta ostalaritza, %27,3; bigarren Administrazio publikoa, hezkuntza eta osasungintza, %20,5 eta hirugarren Industria, energia eta saneamendua, %16,7.

Gipuzkoan aurrena Merkataritza, garraio eta ostalaritza, %26,0; bigarren Industria, energia eta saneamendua, %24,9 eta hirugarren Administrazio publikoa, hezkuntza eta osasungintza, %20,2.

Tamainaren arabera establezimendu-banaketa 2012an aurreko urtekoaren oso antzekoa izan zen. Apenas 2.260 establezimenduk, guztien %1,3k zituzten 50 langile edo gehiago; halere, enpleguaren %38,1 ziren. 133.796 establezimendu, guztizkoaren ia hiru laurden, ez dira 3 lanpostura heltzen eta enplegu guztiaren %19,5 bakarrik hartzen zuten.

Establezimenduen jarduera-adarraren arabera batez besteko tamainaz, enplegu-kontzentrazioa handiena, bai Euskal AEn, bai lurraldeetan, Industria, energia eta saneamendua da. Euskal AEn establezimenduko batez besteko tamaina 14,2 enplegu da. Araban 18,0; Bizkaian 12,7 eta Gipuzkoan 14,2. Administrazio publiko, hezkuntza eta osasungintza establezimenduen batez besteko tamaina: 14,4 Araban, 10,3 Bizkaian eta 10,6 Gipuzkoan.

ENPRESAK

Establezimenduen jardueraren euskarri diren unitate juridikoen –enpresen- %97,7k egoitza Euskal AEn dute eta 3.662k estatuen gainerakoan. Bizkaian 80.493 enpresa daude, erdia baino gutxiago; Gipuzkoan 55.249 (%34,3) eta Araban 21.663 (%13,4).

Enpresen batez besteko tamainak lehengoan dirau: 5,3 okupatu enpresako, eta 4,8 establezimenduko. Nortasun juridikoaren arabera azterketan alde nabarmenak daude. Titularrak Pertsona Fisikoa denean, 1,4 enplegu, bai enpresako, bai establezimenduko; gainerako forma juridikoetarako batez besteko horiek 11,0 eta 8,9 okupatu dira, enpresako eta establezimenduko.

ENPRESA-DEMOGRAFIA

Urte horretan euren jarduera hasi duten enpresen eta eten dutenen arteko saldo garbia: -5.186.

Errotaziorik handiena Merkataritza, garraioa eta ostalaritzan (alten %30,5 eta baje %31,2), Eraikuntzan (alta guztien %15,6 eta baja guztien %22,8) eta Jarduera profesional eta laguntzaileetan (alta guztien %17,1 eta baja guztien %15,5) nabarmentzen dira.

Establezimenduen demografia. Euskal AE. 2013/01/01

Jardueraren arabera	Altak	Irteerak	Nortasun juridikoaren arab.	Altak	Irteerak
Total	13.829	19.015	Guztira	13.829	19.015
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	1.674	780	Pertsona fisikoa	9.209	11.401
Industria, energia eta saneamendua	544	1.116	Akziokako elkartea	270	750
Eraikuntza	2.151	4.340	Elkarte mugatua	3.144	5.189
Merkataritza, garraioa eta hostalaritza	4.214	5.929	Bestelako elkarteak	1.176	1.617
Informazioa eta komunikazioak	390	474	Bestelako forma juridikoak	30	58
Finantza jarduerak eta aseguruetoakoak	305	521			
Onibar-jarduerak	184	980			
Jarduera profesionalak eta lagungarriak	2.365	2.941			
Herri administrazioa, hezkuntza eta osasuna	1.137	962			
Arte jarduerak eta beste zerbitzu batzuk	865	972			

Iturria: Eustat. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda

Demografia nortasun juridikoaren arabera aztertuz gero, Pertsona Fisikoaren formula juridikoarekin sortutako establezimenduak nabarmentzen dira: alden %66,6 eta baje %60,0.

Enplegu kontuetan, Pertsona fisiko diren establezimenduetan gauzatu dira alden %45,1 eta baje %37,5. Sozietate mugatuetan izan dira enplegu alden %34,1 eta baje %34,5.

Establezimenduen tamainaren arabera, geruzarik dinamikoena 2 enplegu edo gutxiagokoa da, ohi bezala. Berak bakarrik alta guztien eta baje guztien %90,7 hartu ditu.

Establezimendu handiagoen (50 langile edo gehiagokoen) geruzan alden %0,1 besterik ez, eta baje ehuneko bera. Berriz, haienak dira enplegu-alde %5,6 eta baje %7,1.

Ohar metodologikoa: Edizio honetatik aurrera, Jarduera ekonomikoen direktorioak establezimendu eta enpresentzat *Pertsona Enplegatuen* kopurua eskaintzen du, *Enpleguaren* orde, europar araudiarekin egokitzeko. Aldea hau da: denbora partzialeko kontratuetan lehenengoak kontratu adina pertsona kontabilizatzen ditu; bigarrenak dedikazio osokotzat baliokidetzen ditu.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

[Euskal enpresen egitura eta demografiari buruzko Prentsa-oharrak](#)

[Euskal enpresen egitura eta demografiari buruzko datu-bankua](#)